

VILAR MARTÍN, J. (2013)

*Cuestiones éticas en la Educación Social. Del compromiso político a la responsabilidad en la práctica profesional. Bartzelona: UOC*

Gizarte Hezkuntzaren praxi profesionalean zein erakuntza teorikoan aditua den Jesus Vilarrek ekarpen interesgarria bezain garrantzitsua dakarkigu liburu honen bitartez. Izan ere, gizarte hezkuntzaren corpus teorikoaren baitan zegoen, eta dagoen, hutsune bat betetzera baitator: gizarte aldaketaren praktika hezitzailearen kontzeptualizazioa etikaren begiradapetik aztertzea, hain zuzen ere. Horretarako, galdera batetik abiatzen da autoreak: nola jardun etika aplikatuaren bitartez gizarte hezkuntzako esku-hartzearen eremuan?

Horrek erdi-erdian jartzen du gizarte heziketaren praktikaren jardun etikoa, horretaz jabetzea, lehen-lehenik, eta, ondoren, handik eratoritzen diren balizko zailtasun praktikoak gainditzeko bideak proposatzen dizkigu autoreak.

Bi atal nagusi ditu liburuak. Lehengoa liburuaren alderdi teorikoa da, eta baditu bi abantaila: bat, argi ikusten dela autoreak bere esperientziatik eta urteetako praktika hezitzailetik edan duela liburuaren zati hau josteko, eta, bi, teoria horrek guztiak sekulako balio duela gizarte hezitzaileek euren praktika profesionala hobeto ulertzeko, beraien esku-hartze eremua dena dela ere. Zati horrek hainbat kapitulu ditu. Lehenengoan, autoreak etika aplikatuaren gaineko gogoeta ordenatua eta argudiatuta egiten du, non filosofiaren ekarpenak aztertzen dituen bioetikaren printzipioak uztartuz. Bigarrenean, justifikatzen du zein arrazoi dauden etikaz aritzeko gizarte hezkuntzan, hezkuntza eremu oro zio eta erabaki etikoez zipriztinduta dagoen neurrian. Hirugarren kapitulua bigarrenaren osagarria da, non ideia nagusia den gizarte hezitzaileen identitatearen eraikuntza bidean balio etikoez zentralitatea eduki behar duela.

Bigarren zatian daude nire aburuz, ekarpen interesgarrienak. Izan ere, gizarte hezkuntzaren alorrean, inor gutxi egin duena egiten baitu Vilarrek: etika profesionala gizarte hezkuntzako praktika profesionalean txertatzeko lan proposamena egiten du. Horretarako, gatazkak moralak zein diren zehazten du, baita ondo azaldu ere, eta horrekin lan-proposamenarako tresnak erakusten ditu, xehe-xehe. Gizarte hezitzaileek eguneroko esku-hartzean topatzen dituzten dilema etikoak gainditzeko aukera-eremua zabaltzen du liburuak, hau da, praxi pedagogikoarekin oso lotutako proposamena egiten du autoreak, eta eremu labainkor eta lausoa den horretan bideak urratzen ditu.

Horrela, bi norabide dituen tresna bat dute esku artean gizarte hezitzaileek. Alde batetik, euren praktikaren gaineko gogoeta teorikoa egiteko

baliagarria den tresna —gatazka moralak onbideratzeko moduak agertzen direlako—, eta, aldi berean, praxia bera orientatzeko bitarteko ezin hobe.

Aldarrikapen bat dago horren guztiaren atzean: kompetentzia etikoen beharraz gizarte hezkuntzaren balio eraldatzailea aldarrikatzeko. Bide hori egiteke dago; hori bai, liburu honek nondik hasi eta hurrengo urratsak zein izan daitezkeen marrazten du.

*Asier Huegun Burgos*